

BIZIAN GORA LARRAN

Doinua: "Maritxu, nora zoaz"

1

- Zeugana etorri naz gaur, Karmengo Ama
- Benetan poztu nozu, alaba laztana.
- Zeugaz egotearren itzi dot gaur dana.
- Hori da egitea Amaren esana.

2

- Benetan maite dogu Larra ingurua.
- Zuokaz hartzen dot Nik poza ta berua.
- Badakigu Larran guk dogula zerua
- Bizian Goran daukat nahiko bezerua.

3

- Badakizu, Amatxo, maite zaituguna
- Ez ahaztu laguntzeko Larran naukazuna.
- Zuk emoten deuskuzu bake osasuna
- Bazenki ondo Amak deutsun maitasuna!

4

- Bizian Gorak, Ama, maite-maite zaitu
- Arduraz nago beti bera zelan zaindu.
- Jesus ezagutzeak asko pozten gaitu
- Bizian Gora lagun Jesusi jarraitu.

5

- Hona, Karmengo Ama, Larrako kuadrila
- Maite diranak beti dabiz alkar bila.
- Zeruan sartu arte luzatu dedila
- Ez dot ahaztuko zuen eskari umila.

6

- Bizian Goratarrok zaindu gaizuz, Ama,
- Ahaztu barik etorri beti lez Nigana.
- Gogoan hartu dogu Zuk hemen esana
- Jakin, Bizian Gora Nik maite dodana.

A. Martzel